

BERTSO BERRIAK

Miren Amuriza

Aitatxo, esaidazu



XDZ

I

-*Aitatxo, esaidazu
hemen zer ari da?*
-Hauteskundeak datoz
denbora gutxira,
partidu askok dute
jokoan partida,
ta horrek sortu ditu
mila tirabira.
Zu handitu aurretik
argituko al dira!

II

-*Aitatxo nik hemen zeu
nabi zaitut alkate!*
-Ezin dut ze ilegal
izango nintzake.
Geure erabakiak
hartzeko orain arte
inoiz ez dugu izan
nahiko libertate,
eta Madrilen aldiz
gehiegi daukate.

III

-*Gaiztakeriaren bat
egin duzu ala?*
-Ez, ez, baina gainean
dugu tribunala.
Duela lau urteko
zerrenda zabala
sortzeagatik nauzu
orain ilegala;
beste milaka euskal
herritar bezala.

IV

-*Baina orain zergatik
dabiltza hain aldrebes?*
-Borroka hau aspaldi
hasi zen tamalez...
-*Ez ote lirateke
konponduko bakez,
gure andereñoak
lematzat dankanez
barkamena eskatu ta
eskua emanez?*

V

-Guk eskua eman arren
haiek ukabila!
-*Ba, goazen elkaturik
protestan Madrila!*
-Ez ligukete utziko.
A ze egur pila!
-*Ba, jar dezagun bertan
kartel biribila!*
-Orduan etorriko
dira gure bila.

VI

Aita semeak holan
joan dira ohera,
beste zenbat etxetan
hizketa berbera!
Nola ez dakit baina
hau da egoera,
argituko ez balitz
gauetik goizera,
maiatza zabal bedi
itxaropenera.

DOINUA: Maixu, zer da Ruanda.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.